

KANALAK

Gure proiektuak arrakasta izan dezan eta ahalik eta bezero potentzial gehienengana iritsi ahal izateko, kanal definitu eta garatu batzuk behar ditugu.

Ez dugu denda fisiko bat baliatuko txipa saltzeko, izan ere, UGGASAk alokatuko digun lokalean bezeroekin kontaktuan jartzeko aukera izango dugu. Lokala Zumarragan egongo da, beraz, inguruko bezeroen eskuragarri egongo da. Bertan bi gune egongo dira; alde batetik, gure produktuaren biltegia eta beste aldetik, bezeroarentzat arreta-zerbitzua. Bezeroa biltegiara produktuaren diseinua ikustera bakarrik sar daiteke, eta bezeroarentzat arreta-zerbitzuaren gunera, berriz, edonor. Bertan, zalantzak argitzeaz gain, erreklamazio edo kexak ere egin daitezke. Pertsonak aurpegira eta zuzeneko kontaktu bat edukiz, erosoago sentituko liratekeela arazo bat azaltzeko orduan, beraz, zerbitzu hau sortzeko arrazoi nagusia hau izango litzatekeela pentsatu dugu. Euskal Herritik kanpo bizi direnek, sare sozialen bidez gurekin kontaktatu dezakete eta bertakoek lokalera urbilldu ahalko dira.



Gure produktua estatu osoko hiri handietako elektronika dendatan salduko dugu, txipa erraztasunez saltzen den produktua da; txikia, merkea, erabiltzeko erraza eta denok dugun arazoa asetzeko gai delako. Horregatik, estatu guztitik salduz, gure produktuak arrakasta izan dezakeela uste dugu. Gainera, multinazionalekin lehiatzen duten denda txikiek kalitatezko produktu eskusibo bat edukiko dute eta ondorioz, enpresa handi horien aurka egiteko aukera gehiago izango dituzte.

SEUR konpainiarekin kontaktuan jarriko gara, estatuko hirietako elektronika-dendetan txiparen distribuzioa ahalbidetzeko. Hauek furgoneta edo kamioietan txipez betetako kaxak eramango dituzte hilabetero. Denda horiek izango dira erosleari gure produktua salduko dietenak.



Instagramen eta Twitterren kontu bat irekiko dugu gure produktuaren xehetasunak gehiago zehazteko. Bertan, produktuaren argazkiak igoko ditugu, eta komentarioen bidez, bezeroek produktuaren iritzia emateko aukera izango dute. Gure enpresak bezeroen iritzi eta kritika eraikitzaileei garrantzia emango die, izan ere, iritzi hauek gure enpresa hobetzeko eta arrakasta handiagoa izateko balioko digute. Sare sozial hauetan, mezu pribatu (Instagram) eta publikoen (Twitter) bidez, bezeroekin kontaktuan jarriko gara eta bertan, beraiek dituzten zalantzak argituko ditugu.



Sare sozialetan edukiko dugun presentziaz gain, produktua eskaintzen duten denda txikiak publizitate sutsua egingo dutelakoan gaude, promozioak bi aldeak mesedetzen baititu. Alde batetik, dendek kalitatezko produktu bat promozionatuko dute eta bezero gehiago erakarri ahalko dituzte, ondorioz, denda txikiak indartu egingo dira. Bestalde, gure produktua ezagutzera emango da eta proiektuak biziraun eta aurrera egingo du, beraz, denda txiki hauei gure gailua eskaintzen jarraitu ahal izango dugu eta feedback kate bat sortuko da.

The logo for JIL, consisting of the letters "JIL" in a white serif font centered within a blue square.

JIL